

Euskararen aldeko borroka

(Txillardegi: bizitza osoa euskararen alde)

“Txipi” Ormaetxea

“Euskerak egin du Euskal Herria: euskerak ez bestek.
Euskerak bizi du Euskal Herria.
Euskerak mugatzen du.
Eta Euskal Herria piz badadi, euskerak piztuko du”
(Txillardegi, *Huntaz eta hartaz*, 1965)

“Nik azaltzen ez dakit, baina euskaraz dakiten
abertzaleak eta ez dakitenak berdinak al dira?
Niretzat ez”
(Imanol Murua, 2001)

“Espainiarekin ezkondata gauden bitartean,
euskara Euskal Herriaren hizkuntza
izango denik pentsatzea amets hutsa da”
(Gotzon Garate, *Gara*, 2004-09-25)

Aurkibidea

- 1- Sarrera**
- 2) 1929-Antigua. Haurtzaroa eta euskara**
- 3) 1947-: euskara ikasi**
- 4) 1955-: Txillardegi idazle: hasierak**
- 5) 1957-1960: euskaltzaleen arteko etena**
- 6) 1963-64: berriro Euskal Herrian (Euskal Idazkaritza Elkartea; dimisio-eskaera Euskaltzaindiari...)**
- 7) 1966-1970: Branka**
- 8) 1979: EHEren sorrera**
- 9) Azken 20 urteak**
- 10) Azken hitza**
- 11) Aipatutako bibliografia**

1- Sarrera

Arratsalde on, eta eskerrik asko denoi.

Hasteko, esango dut ni euskaltzale naizela (eta pentsatzen dut hemen zaudetenok ere izango zaretela. Ez dut eskua altxatzea eskatuko. Ez dago horren beharrik). Euskaltzale izateaz gain, abertzale ere banaiz, hala uste dut behintzat. Honetan beharbada ez gara hemen guzti-guztiak bat etorriko. Bestelako zaletasunak ere badituz: mendizalea naiz, pilotazalea...

Ez nuke esango mitomanoa naizenik, baina badira miresten ditudan pertsonak. Euskal Herrian, euskal mundutxoan, izen bat eman beharko banu, ez dut zalantza handirik: Txillardegi ateratzen zait lehena. Txillardegizalea naiz, hortaz. Aspalditik, gainera, eta hala aitortzen dut haste-hastetik. Bueno, *aspalditik* esan dut. Zer ote da *aspaldi* hori? Nahi baino zaharrago banaiz ere, Txillardegiren “ezagutza” ez nuen 70eko hamarkadaren erditsura arte egin. Etxeko liburutegian begiratzen egon naiz eta oker ez banago 1977an eskuratu nuen lehenengoz bere liburu bat: *Euskara Batua zertan den*, hain zuzen. 3. edizioa zen (pentsa!, orain 27 urte euskal liburu baten 3. edizioa! Liburu honek lehenengoz 1974an ikusi zuen argia, 1975ean egin zen 2. argitalpena, eta 1977an 3.a.). Liburu horren truke ordaindu nituen 500 pezetak ondo enpleatu nituen, ondo baliatu ere. Handik ez luzarora, liburu horren eta Goenagaren Gramatikaren laguntzarekin atera nuen Euskaltzaindiaren “D” titulua. Durangon zen azterketa. Eta hauxe ez dut ahaztekoa: Jose Luis ez da gogoratuko, jakina, baina ahozko proba berarekin egin nuen. Gogoan dut ere Arrasateko kontuak izan genituela mintzagai, eta, inportanteena!, proba gainditu nuela. Jose Luis, gerora sarritan egiaztatu dudanez, oso hurbil sentitu nuen orduan, eta beti izan dut proba hura gainditzeko Jose Luisen *laguntzatxoa* izan nuelako errezeloa.

Honek guztiak eragina du, jakina, ondoren esango dudan guztian: saiatu arren, ez naiz inpartziala izango, ez erabat bederen.

Eta has gaitezen gaiarekin behingoan, izan ere minutu oso gutxi baitituz Txillardegik euskararen alde egin duen lan oparo eta eskergabea, oso axaletik ez bada ere, azaltzeko.

Barka, hasi aurretik ohar bat: Txillardegik bere bizitza osoan egin duen ia lan eta borroka gehienak baluke lekua gaurko nire mintzaldian, alegia, euskara batuaren alde, soziolinguistikan, literaturan, etab.etan egindakoak. Baina, aurretik gai horiek bereziki aztertuak izan direnez, mugak jarri beharrean nago, nahiz eta batzuetan muga horiek non jarri oso ondo jakin ez.

Txillardegik aurtengo ekainean *Berrian* idatzitako hitz batzuekin ekingo diot:

“Herenegun gertatua. Eta Donostiako Zubietako jatetxe famatu batean. Donostiako Ikastola bateko haurrak eta senitartekoak elkaturik. Bero itzela. Eta tabernara hurbildu gara:

— Botila ur bat, mesedez.

— *¿Cómo?*

— Ura, faborez.

— *¿Cómo?*

— *Agua, cojones!* — nik ozenki.

— *Yo no tengo por qué entender el vasco!* — tabernariak ozenkiago. — *Un euro cincuenta y cinco!*

Horretan gaude, adiskideok. Eta orain dela urte batzuk ez geunden horretan. Gu likidatzekotan ausartago daude”.

Zoritxarrez pasadizo hau ez da ezohikoa gure herri zafratu honetan, baina zer pentsatua ematen du pasarte honek. Eta kaskoari bueltaka aritu naiz hausnartzen zer bizipen eta zer sufrimendu izango duen bizitza osoko ipar nagusi EUSKARA izan duen pertsona batek, Txillardegi moduko euskaldun eta euskaltzale batek.¹

2) 1929-Antigua. Haurtzarora eta euskara

Puntu honi eta hurrengoari dagokienez, batez ere J. Agirreren *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean* liburu autobiografikoa erabili dut. Norbaitek irakurri ez badu, biziki gomendatzen diot. Atseginez eta erraz irakurtzen den liburua da. Bide batez, iazko abenduan Euskal Idazleen Elkarteko *Kalegats* aldizkariaren 3. zenbakian, hauxe zioen ELA sindikatuko komunikazio-arduradun German Kortabarriak, liburu hau gomendatuz: “Gomendatzen dut, beraz, *Hitza hitz* liburua, gure herri honen historiaren azken mende erdia hobeto ezagutzeko, korapilatu zaizkigun hainbat gairen nondik norakoa ulertzeko eta itzal publikoaren atzean dagoen gizona ezagutzeko”.

Txillardegiren haurtzarora, hizkuntzari dagokionez, Antigua eta Donostiako gainerako auzoetan euskara zen nagusi, baina industriarekin batera hizkuntza-borroka hasia zen. Berak esaten duenez, egoera euskaldun horren zantzuak ezagutu zituen haurtzarora:

“1937 inguruan (...), oso ondo oroitzen naiz nola Aieteko mutiko batzuek ez zekiten erdaraz” (Agirre 1996: 23).

Eta beste hau:

“Gogoratzen naiz baita ere behin amarekin Zapataritik gora itzuli bat egitera Iza inguruko baserri batera joan, eta hango baserritar batekin nola euskaraz hizketan luzaz aritu zen; nik, jakina, ezer konprenitzen ez nuelarik, edo ezer gutxi bederen” (Agirre 1996: 23)

5 urte zituela, Asturiasko nahasmenduen garaian (1934ko urrian), beldurra zabaldu zen, eta ama, anaia eta hirurak Oñatira joan ziren, familiaren etxera. Han zenbait astez egon ziren. Euskara apur bat ikasi omen zuen, gero dena ahaztu bazuen ere.

Euskara etxean:

Bere hitz hauek erakusten dute hobekien etxeko euskal giroa:

“Ama euskalduna zen, nahiz donostiarra izan, baina euskara neskamearekin edo esnezalearekin hitz egiteko erabiltzen zuen” (...) “Amak etxean giro euskalduna izan zuen, baina euskal giro hori erabat ahuldua zuen dagoeneko” (Agirre 1996: 24)

Abertzaletasuna etxean:

¹ Txillardegiren sumindura eta haserrea aspaldi aipatu zuen Torrealdaiak, Txillardegiren *Euskal Herritik erdal herrietara* liburuari egindako aitzinsolas ederrean: “Euskararen egoerak barrutik kezkatzen du Txillardegi. Egoera linguistikoak, noski: hortik batasunaren aldeko lehia. Baina are kezkatzenago du hizkuntzaren gizarte egoerak: euskaldun hutsak dira zapalduen artean zapalduenak, harentzat. Bereiziki sutzen duena, zera da, gainera: erdaldunaren aurrean euskaldunak duen amore eman behar hori, adibidez lagunartean, bilkuretan, elkarteetan, gizartean... Biziki haserretzen da”

Txillardegik familian lehengusuak bazituen abertzale girokoak,

“baina nik mundu harekiko arrotz ote nintzen sentipena izan nuela aitor dezaket, lehenik eta behin nire lehengusuek euskaraz zekitelako eta nik ez, eta bestetik gure etxean euskal gauzak aipatu ere ez zirelako egiten” (Agirre 1996: 29-30).

Euskal sentipena haurtzaroan:

Txillardegi, 5 edo 6 urte zituela, gerra aurretixoan beraz, hasi zen joaten auzoko eskola mistora (Colegio de Lourdes), eta erabiltzen zuten “entziklopedia”k sekulako eragina egin omen zion:

“Liburu haren arrastoa galdua dut aspaldi, baina gauza bat dut seguru, liburu hartan euskararen berri ematen zela. Bitxia badirudi ere, liburu hark eragin izugarria izan zuen niregan, nolabait euskalduna nintzela edo euskaldun izan nintekeela iradoki balit bezala” (Agirre 1996: 30)

Euskal kontzientzia hartzerainoko eragina:

“Hasieratik bertatik, zazpi urte nituenetik edo, oso jarrera berezia izan zen nirea: euskal mundua ez nuen batere ezagutzen, baina neurea zela sentitzen nuen eta neure mundutzat hartzen nuen” (Agirre 1996: 30)

Aspaldiko elkarrizketa batean aitortua duenez, haurtzaroko Antigua euskaldun jator hartan hozitu zen bere euskaltzaletasuna.

3) 1947-: euskara ikasi

Txillardegiri oso gaztetandik sortu zitzaion euskara ikasteko asmoa. Erdaldun izanaren ezpata betidanik zeraman bihotz-muinetan sartua:

“Neure herrian, neure hauzoan atxeman nuen arrotz neure burua; eta honek ikaragarritzko mina ematen zidan” (Txillardegi 1978: 13)

Txillardegik berak esana da hizkuntzarekiko kezka agian aberriarekikoak baino lehenagokoak izan zituela. Horra arrazoi posible bat:

“Beharbada garai hartako abertzaleek hizkuntzari inolako garrantzirik ematen ez ziotelako izan zen horrela” (Agirre 1996: 37)

1947ko udan, gaixo egon zen etxean ohetik jaiki gabe hilabete inguru:

“Aste horietan ama laguntzaile bakartzat nuela, litografiatik igotako blok handi batean hasi nintzen, amaren esanen arabera, euskal gramatika partikularra osatzen, inoiz erabili dudana lehen. Etxetik irten gabe egindako gaixoaldi horretan aditz-jokoak, deklinabide batzuk, hiztegi bat osatu nituen” ((Agirre 1996: 37)

Etxean baziren ere euskarazko liburu batzuk (Xabierto, Bera-Lopez Mendizabalen hiztegi bat), eta horrela hasi zen Jose Luis euskara ikasten:

“Horrela hasi nintzen euskara ikasten, baina oso azkar sumatu nuen euskara salbatzeko bide bakarra aldakuntza politikoa zela” (Agirre 1996: 38)

1947-1950: euskara ikasten jo eta su

1947an Bilbora joan zen ingeniaritza ikastera, eta euskara ikasten ere gogor jardun zuen. Garai horretan bi irakasle izan zituen: Iñaki Zubimendi Donostian eta Iñaki Zumeta Bilbon.

Geroago bere emazte izango zen Jone ere euskara ikasten ari zen:

“Garai horretan Jone ere euskaraz ikasten ari zen Elbira Zipitriarekin. Jonekin beti euskaraz egin dut, hasiera-hasieratik, eta baita garaiko adiskide batzuekin, Iñaki Larramendi edo Rafa Albisurekin, Mikel Antzaren aitarekin” (Agirre 1996: 39)

Garai horretan bereziki euskara lantzen jardun zuen Txillardegik: 1949-1950 ikasturtean gauz 12:00etatik 3:00ak arte ikasten zuen euskara.²

1949an Krutwig ezagutu zuen, poliglota, kultura handikoa eta euskaltzale amorratua. Krutwigek Iparraldeko *Gure Herria* aldizkarian abonatzeko gomendatu zion, eta aldizkari horren bidez egin zuen Iparraldeko euskararekiko eta euskaltzaleekiko lehendabiziko ezaguera.

Krutwigen bidez Azkue ere ezagutu zuen.

Garai hartako Bilbon euskal giro apur bat bazegoen (Gereño anaiak, etab.), baina

“Bilboko abertzale jende klasikoarentzat euskara folkloreaken parte bat baizik ez zen, txistua jotzeak baino garrantzi gehiagorik ez zuena eta gu asaldatu egiten ginen” (Agirre 1996: 45).

Txillardegik orduan asko irakurtzen zuen eta denetarik. Eta hartua zuen euskaraz funtsezko gauzak idazteko deliberoa.

4) 1955-: Txillardegi idazle: hasierak

1948tik 1955era bitarteko urteak euskara ikasten eman zituen Txillardegik. 1955ean, 26 urte zituela, *Kierkegaard-en hazia Unamuno-gan lore* izeneko saiakerarekin sari bat irabazi zuen. Gero etorriko ziren itzulpenak, saiakerak, eleberriak, artikuluak, ipuinak, gramatikak... Idazle gisa agertua zen Txillardegi euskal mundura. Harrezkero etengabe idatzi eta idatzi jardun du Txillardegik.

Gure gaiari atxikirik, Txillardegiren lehen lana *Egan* aldizkarian argitaratu zen 1956an: “Ez bat eta ez beste (euskeraren auziari buruz)”. Artikulu horretan, Txillardegik argi salatzen du garbizaleek hiztegian zein gramatikan asmatzeko zeukaten joera:

“Euskera euskera da, ta ezin asma diteke ezer. Iñork ezin asma dezake itzik bat ere bere buruz. Sartuko al zaigu au barne-muñetaraño!!”.

Orduko euskararen bizitasun txikiaz ere kexu zen:

“Gaurko euskera ez da oso bizi: erdal kutsua toki guztietan sartu zaigu, eta erderaz pentsatzen dutenak uste dugun baño askozaz gehiago dira”.

Garbizalekeria salatzen bazuen, mordoilokeriatik edo zabarkeriatik ere ihes egin beharra aldarrikatzen zuen, beharrezko oreka lortzea erraza ez izan arren.

Urte berekoa da “Karta idigia” artikulua (*Euskera*, 1956), El Ferrolen soldadutzan zegoelako Arantzazuko I Biltzarrera bidalia. Aurrekoaren ildotik, euskara bizia du Txillardegik obsesio:

“Euskeraren bizia ziñez nai ez duena ez da benetako euskaltzalea. Onengatik gauza bat eskatzen digu euskeraren egokerak euskaltzale guztioi: gogor lan egiteko agindu irmoa”.

Txillardegik euskara euskaldunen mintzabide nahi du:

“Baztertu egin behar dugu etimologi-arrazakeria, elburu bakartzat au artuz: euskera maitea euskaldunen mintzabide biurtzekoa”.

Euskararen salbazioa eginkizun praktikoetan ikusten du, eta eginkizun horiek bitara biltzen ditu: 1) Gutxiengo bat gertu; 2) Euskara gaitu, batu eta osatu.³ Zenbait

² Duela astebete, elkarrizketa batean, honela azaldu zuen euskaldun berri izateari noiz eta nola utzi zion (*EL PAIS*, 2004-9-26): “Martuteneko espetxean preso 1950ean egon nintzenean, Azpeitia eta kostaldeko jendearekin hizketan kendu nituen euskaraz hitz egiteko beldurra eta euskaldunberri izatearen konplexuak”

aholku ere ematen ditu: nor bere aldetik euskara ahalik eta sakonen ikasi; haurrentzako eta euskaldun berrientzako eskolak taxutu, elkartu eta eratu; euskaltzaleen elkar ezaguera biziagotu, euskal aldizkari eta erakundeak indartu, etab.

Garbi ikusten da, duela 48 urte!, zertan zegoen Txillardegiren burua eta gogoia. Baina, tamalez, guztiak ez zebiltzan uhin beretan.

5) 1957-1960: euskaltzaleen arteko etena

Txillardegia Euskaltzaindian sartu zenean ere, 1957an, oraindik erdal joerak nabarmen zeuden. 1950tik aurrera, Krutwig gogor saiatu zen Euskaltzaindiko bilera eta lanetan euskara erabil zedin, baina erdal joera ez zen bat-batean aldatu.

Txillardegik behin baino gehiagotan kontatu du Orixerekin izandako pasadizoa. 1958a zen, eta Jone eta Jose Luis Orixe operatu berria bisitatzera joan ziren klinika batera. Haiak euskaraz eta Orixek erdaraz. Horra Txillardegiren hitzetan (Agirre 1996: 50):

“Halako batez, emaztea eta biok erabat mindurik, ausartu egin ginen moztera:

—Aizu, Orixe! Euskaraz ere badakigu!

Ez zen jabetu ere egin bera, eta erdaraz segitu zuen”.

Eta honela azaltzen du euskaltzaleen artean zegoen etena (Agirre 1996: 50):

“Guk, orduko gazte abertzaleok, geure herriaren mintzabide bihurturik nahi genuen euskara. Hortxe sumatzen zen bi euskaltzale belaunaldien arteko etena”.

Eta garbi ikusten zuten ere euskararen arazoa politikoa zela guztiz (Agirre 1996: 51):

“Euskal eskola eta unibertsitatea, euskal administrazioa, euskal prentsa bultzatzeko, ekonomiaren alorrera euskara sartzeko, egoera politikoa aldatu behar zela, frankismoaren barruan euskararen arazoa ez zegoela konpontzerik”.

Garai horretan gazte abertzaleek uste zuten orduan bertan osatu eta prestatu zitekeela euskara harremanetarako, baina zaharragoek (Mitxelenak, esaterako) ez. Mitxelenak orduan ia gehiena erdaraz idazten zuen, eta hori gazteagoek ez zuten onartzen.

Euskaltzaindian bi sail nagusi ziren: Iker Saila, zientzi alorrekoa, eta Jagon Saila, hizkuntzaren biziari buruzkoa. Abertzale gazteek azken honetan ikusi zuten euskararen alde zerbait egiteko aukera. Horrela, 1959an, Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izeneko erakundea indartu nahi izan zuten, Jagon Saileko azpisail gisa. Azpisailaren idazkari Txillardegia izendatu zuten, eta hasteko 11 puntuko plan bat aurkeztu zuen (1960ko ekainean) (Ik. Txillardegia 1994: 153-156).

³ Garai hartan sarri esan zuen hau Txillardegik. Esaterako, *Huntaz eta hartaz* (1965) liburuko “Euskotarrak utikan!” artikuluan: “Euskera gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorrotzu, eta aberastu egin behar dugu. Hau da eginkizun premiatsu bat”. Bidenabar, liburu hau zela-eta, horra zer idatzi zion Etxaidek Martin Ugalderi: “Amarretatik bederatzia berarekin nago. Axular’en *Geroren* geroztik ez da idatzi orrelako libururik euskeraz” (P. Alberdi, *Satorrak baino lurperago*, 124 or.).

Baina Euskaltzaindian agintzen zutenek (“geldikoiek eta legezaleek”, Txillardegiren hitzetan (Txillardegi 1994: 156)) trabak ipini zituzten. Erakunde berriak autonomia ekonomikoa eskatzen zuen, eta Euskaltzaindiak ez zuen horrelakorik onartu nahi.

“Gure atzean nor ote zegoen galdegiten zuten euskaltzain geldikoiek” (Agirre 1996: 63).

Laguntzaileak erakundeak ez zuen luze iraun. Gainera, Txillardegi 1960ko abuztuan Guardia Zibilak atxilotu zuen, eta 1961eko Urteberri egunez muga pasatu zuen, 16 urte luzetako deserrialdiari ekinez.

6) 1963-64: berriro Euskal Herrian (Euskal Idazkaritza Elkarteak; dimisio-eskaera Euskaltzaindiari...)

Parisen egonaldi bat egin ondoren, Txillardegi berriro Euskal Herrira itzuli zen, Hazparnera. 1963an Baionan Euskal Idazkaritza Elkarteak sortu zen, euskal kultura indartzeko asmotan. Eta euskararen alorra Txillardegiren eskuetan geratu zen Txillardegik berak esaten digunez, bi helburu nagusi zituen Elkarteak (1994: 159): 1) Euskara Batua Iparraldetik ere bideratzea, eta 2) euskal kazetaritza eta liburugintza sustatzea.

Txillardegiren euskararen aldeko borrokan, kontu aipagarria da Euskaltzaindian dimisioa (‘demisioa’ esango luke Txillardegik) eman zueneko. Honek ere Euskara Batuarekin du zerikusi handiena, eta ez naiz hortaz hemen gehiegi luzatuko. Baina horra zertzelada batzuk: Iparraldera jaitsi zenetik Euskaltzaindiko bileretara joaten hasia zen Txillardegi. 1963an bi euskaltzainen sarrera-ekintzak ospatu ziren, bata Iratzederrena eta bestea Haritxelharrena. Haritxelharrek Baigorriin nafarrera behereaz hitz egin zuen bere sarrerakoan, eta erantzunean Lafonek zubereraz. Hau Txillardegik ezin eraman eta dimisioa aurkeztu zuen. “Euskaltzaindia”ko adiskide maiteok, agur” hasiera duen izkribu luzea idatzi zuen, proposamen zehatzak eginez. Sarreran Euskaltzaindiak euskara bizia zaintzeko ezer gutxi egiten zuela salatu ondoren, berehala Biltzar Nagusi bat antolatu beharra aipatzen zuen, eta hauexek, laburturik, Biltzar horrek erabaki beharrekoak: ortografia bat onartu, batasuna aditzean eta deklinabidean, euskararen biziaz arduratuko zen Saila abiarazi, diru-eskabidea egin publikoki, euskara mintzabide bihurtu eskolan, Elizari dei bat egin apaizek euskaraz egiteko duten beharraz... Azkenik, Biltzar nagusia 1963an berean Iparraldean egitea proposatzen zuen.

Alda daitezkeen esaldi ugarien artean, horra bat:

“Errazago zaio Euskaltzaindiari euskeraren BITXITASUNAZ ari izatea, euskeraren BIZITASUNAZ baiño. Bitxitasunari so egiñik, ordea, bere xedea nahasten du eta lana lardaskatzen” (Txillardegi 1994: 165).

Bukaeran gainerakoei ere dei egiten die bere bideari jarrai dakizkion:

“Ez nuke neuk bakarrik utzi nahi Euskaltzaindia. Euskeraren onerako, Euskal Herriaren ohoretan, eta egiazko Euskaltzaindia bat sor dedin, adorea eta euskal garra duzutenok: egin zazute nik bezala”

Hemen ezin gara luzatu, baina biziki gomendatzen dizuet gutun hori irakurtzea. Estreinakoz Enbatan agertu zen 1963ko irailean, baina errazago aurkituko duzue hemen: Txillardegi 1994: 161-167.

Jakingo duzuenek, orduan euskaltzainburu zen Jose Maria Lojendiok ez zuen Jose Luisen dimisioa onartu, eta agindu zion Euskara Batuaren prozesua *berehala* bideratuko zuela.

7) 1966-1970: Branka

Branka 1966-1972 bitarteko urte nahasietan Bruselan argitaratu zen aldizkaria izan zen, abertzale erbesteratuen aldizkaria. Euskaldun intelektualen aldizkari izan nahi zuen, eta abertzalea osoki. Horra 2. zenbakiko (1966ko iraila) hitzaurretik hartutako pasartetxo hau:

«“Branka” EUSKALDUN kaseta bat da: euskaldunek egiña eta euskaldunen zerbitzutan idatzia; eta hortaz, bestela eziñik, abertzale eta euskaltzale errotik” (...) “Gure Aberria Euskal Herria da, gure nazio-kultura euskalduna da, eta gure hizkuntza euskera».

Eta Txillardegi izan zen aldizkariaren arima. Gai gehienak politikoak baziren ere, Txillardegik hizkuntzari buruzko hainbat artikulua idatzi zituen, orain gehienak *Euskararen aldeko borrokan* liburuan berrargitaratu direnak. Horietan ezagunena eta lehena “Hizkuntza eta pentsakera” da, geroago (1972) izenburu berarekin eta sakonago liburu gisa argitaratua. Txillardegik, garai hartan Europan eta Ameriketara puntakoak ziren hizkuntzalari estrukturalistei jarraiki, hizkuntzak pentsaeran duen eragina nabarmendu nahi izan zuen. Hots, hizkuntza herri baten nortasunaren eta arimaren beraren habe nagusia dela. Hizkuntzalaritzaren arabera, Euskal Herriaren nazio-berezitasuna hizkuntzan datza.

Baieztapen honekin hasten du artikulua Txillardegik (2004: 65):

“Herri batek bere hizkuntza ahaztu, eta beste bat hartzen duelarik, beste herri arrotz bat billakatzen dala, beste izakera bat nagusitzen zaiola, gauza jakiña da aspaldidanik”

Hamaika aipu eta adibide emanek, behin eta berriz azpimarratzen da herri baten tresna nagusia hizkuntza dela (2004: 85):

“Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintzaren oinarria. Hitz batez: HIZKUNTZA DA HERRI BATEN ARIMA”

Herri baten izakera eta bere hizkuntza elkarri loturik, josirik daude errotik. Horrela (2004: 88),

“euskera hilko balitz, Euskal Herriak bere izakera berezia, bere jitea, bere jatortasuna, bere nortasuna, bere euskaltasuna, BERE NAZIO-ARIMA OSOA hitz batez, galduko luke”

Eta modu honetan bukatzen du artikulua (2004: 88):

“Zerk egin du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izakera berezia? Zerk egiten du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk berezten gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? EUSKERAK EZ BESTEK”.

2. zenbakian (1966ko iraila) “Hizkuntza eta herri-kidetasuna” idatzi zuen. Labur esanik, hizkuntzak ematen duen pentsaera-berezitasunari beste bat erantsi behar zaio: hizkuntzak ematen duen herrikidetasuna edo aberkide-sentimena,

“ez baitago egiazko herrikidetasunik eta ez nazio-batasun iraunkorrik ere, hizkuntzazko batasunetik kanpo”.

Eta hizkuntza galtzearen ondorioez ohartarazten gaitu:

“HIZKUNTZA TRUKATU ONDOREN, HERRIKIDETASUNA ERE TRUKATU EGITEN DA. ANTZINAKO ABERKIDETASUNA, ETA ABERTZALETASUNA SEGIDAN, ITZALDU EGITEN DIRA; ETA BEREN ORDEZ HIZKUNTZA BERRIARI DAGOKION ABERKIDETASUNA PIZTUTZEN DA, ETA SEGIDAN ABERTZALETASUN BERRIA ERE” (Txillardegi 2004: 93).

Beraz, hizkuntzaren batasuna erresumaren oinarria da.

Eta hain zuzen ere, *Brankaren* 5. zenbakian (1967ko ekaina) “Hizkuntza eta erresuma” idatzi zuen, gaur egun ere artikulua guztiz gomendagarria. Garaiko hizkuntzalari gehienek esaten ez dutena, garbi esaten du Txillardegik: “hizkuntzaren kakoa erresuma da”, alegia, erresuma da hizkuntzaren etorkizuna erabakitzen duena. Historian zehar ere hala izan delako hainbat froga ematen ditu eta, jakina, gaur egun erresumaren eragina gero eta nabarmenagoa dela ez dago esan beharrik. Ondorioz, herriaren hizkuntza (gure kasuan, euskara) nagusi ikusi nahi bada, ez dago erresuma-hizkuntza bilakaraztea besterik. Garbi mintzo da Txillardegi:

“Herriaren hizkuntza nagusi dedin, bide bat baizik ez dago: erresuma libro bat etniaren zerbitzuko jartzea; eta erresuma hortan, legezko hizkuntza eta erresuma-hizkuntza bakartzat etniarena jartzea. Nagusitu diran hizkuntza guzietan hori egin dute. Eta hau egin ez dutenak, galdu egin dira” (Txillardegi 2004: 117).

Azkenik, aipatu baino ez *Brankan* argitaratu zituen beste bi artikulua: “Suomi’z zenbait jakingarri” (1967) eta “Euskeraren arazoa beste hizkuntza-pizkunderen argitan” (1970). Esango nuke lehenarekin ekin ziola Txillardegik gerora sekula utziko ez zion ildoari, hots, munduan eta bereziki Europan gure antzeko herrietan hizkuntza-pizkundeak nola gertatu diren azaltzeari, gure lana eta eginkizuna argitze eta bideratze aldera. Euskal Herrian besterik ba al da arlo horretan Txillardegik adina idatzi eta zabalkunde-lana egin duenik?

8) 1979: EHEren sorrera

Jauzi handi bat egingo dugu. 70eko hamarkadan, Arantzazuko Biltzarraren ondoko urteetan Txillardegik gogor lan egin zuen Euskara Batuaren zabalkunde-lanetan. Idatzi ere asko idatzi zuen, batez ere Zeruko Argian. Bestelako lanak ahaztu gabe: liburuen itzulpenak, ikastoletarako materiala, etab.⁴

1977an itzuli zen Hegoaldera eta ESB (Euskal Sozialista Biltzarra) alderdian sartu zen. Alderdi horren ideia nagusiekin ados egon arren, baldintza batzuk jarri zituen Txillardegik:

“Oso garbi nuen alderdi politikoak euskaldundu egin behar zirela, bestela jai genuela eta estatutuetan bi urteko epea jarri genuen zuzendaritzan zeudenak euskaldun zitezten edo zuzendaritza hori euskaldunen eskuetan utz zezaten” (Agirre 1996: 139).

Baina laster ohartu zen alderdiek euskara ez zutela lehentasunetan eta soilik botoekin egiten zutela amets. ESBn ere berdintsu, ez zegoen alderdia euskalduntzeko asmo sendorik. Orduan,

⁴ Hamarkada horretako urte bat hartzen badugu, 1973 esaterako, hauxe dugu: 35 lan argitaratu zituen Txillardegik urte horretan. Gehienak artikulua laburrak (*Zeruko Argian* 31, 2 *Anaitasunan*, eta 1 *Zabalen*). Eta erdaraz argitaratu zen 70 orrialdeko liburua, batzuegan eragin sakona izan zuena: *Proyecto de manifiesto vasco*. Lan hori *Harrizketa* toponimo antigutarraren sinadurarekin agertu zen, eta Monzonekin batera Nogaron egin zuen 4 hilabeteko egonaldian idatzi zuen. Gure gaiarekin lotuta, horra Txillardegiren pentsaera eta idazkera-estiloaren erakusgarri bat (“Matematika eta erderomanoak”, in *Zeruko Argia*, 527. zenb. (api. 8, 1973): “Izurrite horri [taldeetan erdaldunen eragin kaltegarria euskararendako] nagusitzeko bide bat baizik ez baitago: 1/ ardi-larraz jantzitako URDEEN aurka, ikastolei nola edo hala eustea; 2/ errazkeriak baztertuz, euskara lantzea eta ikastea, beti ere euskaraz lasai hitzegiteko gauza izan arte; 3/ katalanek, flamenkoek eta txekoez egin duten bezala, euskaldunok ere, gure hizkuntza ez dakitenen aurrean, ausarki EUSKARA HUTSEZ hastea; 4/ euskaraz ikasteko urratsak EMATEN ez dituzten ERDEROMANO eta sasi-euskaltzaleak zapuztu, mespretxatu eta zakurraren ip. ra botatzea. Bestela, jaunak, gureak egin du”

“gu kontuak eskatzen hasi ginelarik, erantzuna izugarri gogorra izan zen, alderdia zatitzen ari ginela eta 80an bota egin gintuzten” (Agirre 1996: 140).

Kontuak horrela, eta ikusirik alderdien dinamikak euskararen aldeko lanari galga jartzen ziola, ideologia desberdinetako jendea bildu eta Euskal Herrian Euskaraz (EHE) mugimendua sortu zen. Asko ESBn ibilitakoak ziren:

“Mugimendu berri honen hasieran ibili ginen batzuk, Xabier Pikabea, Kepa Mendia eta beste zenbait, ESBtik pasatako jendea ginen” (Agirre 1996: 140).

Zoritxarrez ez dut informazio handirik lortu EHEren sorreraz eta hasierako urteez. Badira 25 urte sortu zenetik, eta EHEn bertan esan didatenez, ba omen zegoen liburu bat idazteko asmoa, baina oraingoz ez da gauzatu.

Txillardegik berak kontatu didanez, EHE sortu Lesakan egin zen. Gero jendartearen aurrera 1979ko azaroaren 4an aurkeztu zen, Durangon, EUSKARARIK GABE, EUSKAL HERRIRIK EZ lemapean. Han bildu ziren 40-50 lagun (tartean Txillardegi eta Luis Mari Mujika idazle ezagunak), Hegoaldeko lau probintzietatik etorriak. Ikusirik abertzale ez zirenek ez ezik, alderdi abertzaleek ere euskara zokoratu eta marjinatu egiten zutela, Euskal Herria euskalduna lortzeko asmotan, errebindikazioa eta borroka hartu zituen ikur nagusitzat erakunde berriak. Sorrerako agirian esaten zenez, hizkuntza-marjinazioa sufritzen zuena euskal komunitatea zen, ez euskaraz ez zekiena. Horregatik:

“Amnistiaren eta beste borroka politikoen alde sortu diren "gestora" delakoen antzera, euskararen aldeko "talde eragileak" sortu behar direla pentsatzen dugu, euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko; hemengo "alderdi abertzaleek" zoritxarrez, betekizun hori gehien batean ahaztuta dutelako”.

Ezari ziren puntu minimoen artean, honako hauek azpimarratuko ditugu: errebindikapena eta salaketa ekintza praktikoetan gauzatuko zen; elkarte hauek autonomoak izango ziren edozein partidu politikorekiko; euskara izango zen elkarte hauen hizkuntza egiazkoa eta faktikoa; euskararen minimoak eskatuko ziren batzar, komunikabide, mitin eta abarretan; elkarte hauen ekintza Euskal Herri guztira zabalduko zen. Eta abar.

Agiriaren bukaeran, goian aipatu dugun lema azpimarratzeaz gainera, euskaldunei euskaraz egitera eta euskaldunen eskubideen alde egitera deitzen zitzairen, eta erdaldunei euskara ikastera.

Horrela, hasierako urte haietan alde batetik teoria landu zuten (hots, Diglosia eta Elebitasunaren arteko desberdintasuna azaltzen aritu ziren herriz herri)⁵, eta bestetik garrantzi handia eman zitzaion ekintzari, instituzioetatik eta administrazioetik euskarak jasaten zituen erasoei aurre egiteko. Ekintzarik sonatuenak, hauexek: erdarazko seinaleak estaltzea han eta hemen⁶, Donostian Eusko Kontseilu Nagusian egin zen itxialdia euskararen normalizazioaren aldeko plangintza exijituz, Nafarroako Diputazioan egindako itxialdia euskararen ofizialtasuna eskatuz,

⁵ Txillardegik EHE sortu aurretik gai hauek tratatuak zituen behin baino gehiagotan Zeruko Argia eta Garaia aldizkarietan. *Euskal Herriak Erdal Herrietara* liburuan aurki daitezke gehienak. Horra izenburu batzuk: “Euskal Herriko elebitasuna eta beste herritako jokabideak” (1976), “Diglosia eta elebitasuna: bi izkribu argitsu” (1976), “Eire eta euskal elebitasuna” (1977), “Diglosia: horra hor arriskua” (1978).

⁶ Bazegoen aurrekaririk Europan, Irlandan zehazki. Txillardegik berak —nork, bestela? — aipatu zuen “Irlanda-ko herri” (1977) artikuluan: “Baina kakra hau da: 1972-an kanpaina gogor bat egin zutela gaelikoaren aldeko burrukalariak, ingeles hutsez izkiriaturik zeuden ikurrak beltzez zikinduz...” (Txillardegi 1978: 380)

Donostiako RTVERen okupazioa 1981eko otsailean (tejeradaren bezperan), etab. Txillardegi Donostiako ekintza horietan egon zen, jakina.

Gerora, eta kontuan izanik EHERen lan nagusia kale-borroka zela (salaketak, pintaketak, okupazioak, etab.), Txillardegik ikusi zuen hobe zela gazte jendea lan horietarako. Baina behar zenerako han jarraitu zuen beti. Esaterako, 1984ko apirilaren 14an, AEK-ren mitin batean EHERen izenean hitz egin zuen Txillardegik, gure hizkuntzarendako plangintza orokorra eskatuz.⁷ Hamar urte geroago ere, 1994an, EHERen 15. urteurrenaren ospakizunen kariatara, Koldo Mitxelena kulturune honetan bertan bildu zirenen artean hor zegoen Txillardegi, EHERen sortzaile gisa.

9) Azken 20 urteak

Txillardegik egundo ez dio utzi euskararen aldeko borrokari. Eta 75 urte bete dituen honetan ere euskara du eragile nagusi.

1984an euskal azentuaz tesia egin ondoren, UPV/EHUn aritu da lanean, batez ere soziolinguistikaren inguruko gaiak irakatsi eta ikertu dituelarik. Fonologiari eta ahoskerari buruzko bere ardura eta lanak ahaztu gabe.⁸

Bestalde, bestelako konpromisoek eta osasunak utzi dioten neurrian, Jose Luis beti egon da hortxe euskararen alde egin diren ekintza guztietan.

10) Azken hitza

Euskara eta aberria, aberria eta euskara. Horiek izan dira Txillardegiren bizitzan goiburu nagusiak. Bien arteko ordena jartzekotan, euskara aurrenik, horixe izan baita bere ardatza ekintza mailan. Horren froga, duela hilabete *Berriari* esan zizkion hitzak (2004-9-5):

“Ni ez naiz euskaltzale bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni euskaltzale nintzen, eta euskaltzale izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara”

Eta guk galdetzen dugu: Txillardegik gazte-gaztetatik euskararen alde egindako lan eskergak ez ote zuen ezagutza eta esker on handiagoa eta duinagoa merezi? Esaterako, aspaldi batean *euskaltzain oso* izendatuz eta Unibertsitatean Gasteizko Filologia Fakultatean irakasteko aukera emanetz?

⁷ Begira zein hasiera indartsua eman zion hitzaldiari:

“Aberkideok:

Eguneroko borrokan beharrezkoak ez diren hizkuntzak,
folklore mailan bakarrik erabiltzen diren hizkuntzak,
sinbolo huts bihurtzen diren hizkuntzak,
ghetto-ra kondentzen diren hizkuntzak,
herri baten bizirik at jartzen diren hizkuntzak...
galdu egiten dira”.

⁸ Aurten bertan, Mendebalde Kultur Alkartean antolatutako VIII. Jardunaldietan “Batua eta euskal fonologiak” izeneko hitzaldia eman zuen Bilbon, maiatzaren 8an. Besteren artean, honako hau deitoratzen zuen Txillardegik, alegia, abertzaleen artean ere Euskal Herri euskaldunaren aldeko apustua egin gabe dagoela oraindik. Nazio-pizkundea ezagutu duten herrietan (Txekia, Hungaria, Eslovakia, Serbia, Grezia, Norvegia, Estonia, Turkia, Israel) ez bezala. Artikulu horretan, bestalde, Txillardegik gogor kritikatu zituen Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan eta ortografian hartutako zenbait erabaki.

Baina badakigu jakin, zoritxarrez, sarritan merezimenduen gaintik beste gauza batzuk daudela, batzuek (euskaltzainak tartean) onartu nahi ez badute ere.

Nik nire aldetik hauxe esango dut, amaitzeko: Agur eta ohore, Txillardegi!, eta biba zu! Eta egin duzun lan guztiagatik: *eskerrik hanitx!*

Intelektual petoa dela
Esatea da zilegi
Euskal Herria helburu hartuz
Tinko gailen da ageri
Euskaltzalea, abertzalea
Batetik bat eta erdi
Jaso duzunaz alderaturik
Eskaini duzu gehiegi
Bihotz barnetik ateratzen zait:
Mila esker TXILLARDEGI.

11) Aipatutako bibliografia

Agirre, J, 1996, *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean*. Donostia: Elkar.

Alvarez Enparantza, J. L. *Txillardegi*, 1983 [1965], *Huntaz eta hartaz*. Donostia: Elkar.

Alvarez Enparantza, J. L. *Txillardegi*, 1978, *Euskal Herritik erdal herrietara*. Amorebieta: Gráficas Bilbao.

Alvarez Enparantza, J. L. *Txillardegi*, 1994, *Euskal Herria helburu*. Tafalla: Txalaparta.

Alvarez Enparantza, J. L. *Txillardegi*, 2004, *Euskararen aldeko borrokan. Euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983*. Donostia: Elkarlanean.